



ONDARROAKO  
UDAL EUSKARA  
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2014/1  
Eguna: 2014-02-11  
Hasiera-Amaiera: 18:30 - 20:45  
Tokia: Batzar-gela 1

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

---

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Marga Bilbao	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Itsasne Murillo	Txomin Agirre ikastola
Asier Alkorta	Hitza egunkaria
Ibon Aginaga	Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkaria

Maite Rey                      Batzordearen idazkaria

### Bertaratu ezina adierazi dutenak:

---

Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Eduarne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria

### AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Ondarroako Udalean onartutako Euskararen erabilera-planaren berri ematea.
3. Udal Euskararako aurrekontu-aurreikuspena 2014rako.
4. Zenbait ekintza bideratzeko proposamena:
  - Liburuen Amuak irakurle kluka
  - Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina
  - Udaleko itzulpen zerbitzuaren kontratazioa
  - Herri hizkera lantzeko multimedia materiala sortzeko ekintza-proposamena.
5. Eskariak eta galderak.



Batzar-zk.: 2014/1  
Eguna: 2014-02-11  
Hasiera-Amaiera: 18:30 - 20:45  
Tokia: Batzar-gela 1

## **Esan-eginak:**

### **2. Ondarroako Udalean onartutako Euskararen erabilera-planaren berri ematea.**

Batzordeko idazkariak azaldu du onartutako erabilera UEMArekin batera landu dela planaren eta ardatz nagusia dela euskaraz bermatzea lan eta zerbitzu hizkuntza bezala, hizkuntza eskubideak errespetatuz. Era honetara egituratuta dago: egoeraren analisia eta UEMAren irizpidea lau atal nagusi hauetan: irudi korporatiboa, barne harremanak, kanpo harremanak eta baliabideak. Amaieran, 2017 amaierarako Udalak ze helburu lortu behar dituen zehaztu da. Eta egiteko geratzen da urtez urteko kudeaketa plana, epeak eta arduradunak zehaztuta.

Diagnostikoko emaitzen argitan UEMAk egin du UEMAko herrien sailkapen bat udal bakoitza dagokion mailan kokatuz, goreneko mailatik apalenera: tontorrean, gorabidean, magalean eta abian. Batzordeburuak azaldu du gure udala gorabidean dagoela, hau da, nagusiki euskaraz funtzionatzen duela.

Planaren edukiei helduta, Bakarne Aretxabaletak adierazi du, bere ustez, zorrotz jokatu behar dela kontratazioetan; batez ere, Vodafone, Telefonica eta horrelako enprekin, bai eta Jaurlaritzarekin eta, oro har, herri administrazioekin. Horiei guztiei eskatu beharra dago euskararen erabilera. Zenbait planteamenduetan, ostera, estuegi jokatu dela iruditu zaio, esate baterako, diruz lagundutako elkarte eta jardueretan eta udal baimenetan; izan ere, horren arabera, Galizia Etxekoari, adibidez, eskatu behar zaio dena euskaraz egiteko.

Erantzun dio batzordeko idazkariak esanez, euskararen eskakizunak izango duela eragina, batez ere, batetik, Udalak elkarte edo taldeei ematen dizkien diru-laguntzetan, eta, bestetik, talde edo elkarte horiek Udalaren diru-laguntzaz eskaintzen dituzten ekintzekin lotuta (ekintzaren ahozko jarduna, propaganda...) eta horietan euskara erabili beharko dutela (Galizia etxekoen adibidean, beste hizkuntzekin batera, baina euskaraz tamaina edo maiztasun handiagoan).

Administrazioen betebeharrei buruz, berriz, Batzordeburuak esan du ikusita zer nolako egoskorkeria duen Espainiako Gobernuaren ordezkariak Ondarroako Udalarekin (azkena, errekerimendua izan da onartutako V. euskara-plana bidaltzeko), Bilduk pentsatu duela erantzun bat ematea esateko herri euskaldun moduan zailtasunak besterik ez dela ipintzen ari.

### **3. Udal Euskararako aurrekontu-aurreikuspena 2014rako.**

Batzordeburuak azaldu du oraindik onartzeko prozesuan dagoela aurrekontua eta gogoratu du aurreko batzarrean esandakoa, hau da, aurrekontu-aurreikuspenak izango dituen ildo nagusiak: Batetik, UEMA, Hitzarmenak Aek-rekin, Hitzarekin eta Lea-ArtiBai Euskararirekin, eta diru-laguntzak deialdiak (elkarteei, euskara ikasleei eta merkataritzari); eta beste alde batetik, Augustin Zubikarai Nobela saria, Literatur Amuak, Liburuen Amuak eta Idazlan Rallya, baina



Batzar-zk.: 2014/1  
Eguna: 2014-02-11  
Hasiera-Amaiera: 18:30 - 20:45  
Tokia: Batzar-gela 1

horiek izan lezake murrizketarik eta, azkenik, diru-kopuru bat Euskara Sustatzeko Plangintzako ekintzak bideratzeko.

#### 4. Zenbait ekintza bideratzeko proposamena:

- **Liburuen Amuak irakurle kluba**
- **Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina**
- **Udaleko itzulpen zerbitzuaren kontratazioa**
- **Herri hizkera lantzeko multimedia materiala sortzeko ekintza-proposamena.**

Oraindik aurrekontua onartu gabe badago ere, pasa den urteko aurrekontu luzatuarekin lanean ari da udala eta, horregatik, zenbait egitarau (pasa den urtean egon ziren berberak) martxan jarri ahal direla azaldu du euskara teknikariak, hala nola: Liburuen Amuak irakurle kluba, Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina eta Udaleko itzulpen zerbitzuaren kontratazioa.

Batzordeak azaldu du Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainaren ingurukoa: Bizkaiko Alkarbide bilgunean egiteko pentsatuta zegoen, hasiera batean; baina, azkenean, jakin dugu UEMAko udalerrietan kanpaina bateratua egingo dela, aparteko kosturik gabe, eta nola planteamendua, funtsean, berbera den, (alegia, pasa den urtean egin genuen gauza bera: esku-orriak herritarrentzat eta eskutitza finantza erakundeentzat), logikoa dirudi UEMAekin egitea.

Egitarauok martxan jartzeko oniritzia eman dute batzarkideek, eta, era berean, pentsatu dute egokia dela itzulpen zerbitzuaren kontratazioari eta herri hizkeraren egitarauari buruz informazioa zabaltzea iragarkien bidez.

#### 5. Eskariak eta galderak.

Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkariak azaldu ditu eskualdeko batzordeko gaiak:

Batetik, pentsatu dute **merkataritza arloan kanpaina bat** egitea. Beraiek diagnostikoa egingo lukete dendetan jakiteko zenbat euskaldun dauden eta zenbat euskara egiten duten, eta ondoren, aholkularitza emateko.

Eta bestetik, **Udalaren jarrera dekalogo**a: Eskualdeko Udalak hasiak dira ontzat hartzen dekalogo eta hurrengo pausua herritar ezagunei dekalogo aurkeztea izango da bere egin dezaten. Kultura, kirola eta gizarte esparru zabaleko hainbat pertsona aipatu ditu eta esan du datorren astean batzar baterako deia egingo dietela dekalogoaren edukia aurkezteko eta bat egin dezaten.



Batzar-zk.: 2014/1  
Eguna: 2014-02-11  
Hasiera-Amaiera: 18:30 - 20:45  
Tokia: Batzar-gela 1

### **ERABAKIAK**

- Batzar-agiri hau onartu da: 2013-11-19koa.
- Egitarau hauek martxan jartzea:
  - Liburuen Amuak irakurle kluba
  - Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina
  - Udaleko itzulpen zerbitzuaren kontratazioa

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey